



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

## Mugikortasuneko Kontseilu Sektoriala – Bostgarren bilera

### Consejo Sectorial de Movilidad – Sesión Quinta

<b>Deialdia egin duena</b> Convoca	<b>Donostiako Udala</b> Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián
<b>Data, tokia eta ordua</b> Fecha, lugar y hora	<b>2017ko abenduaren 17/</b> 17 de diciembre de 2017 <b>Europa Aretoa. Udaltzaingoaren Morlanseko egoitza</b> / Sala Europa. Edificio de Morlans de la Guardia Municipal <b>18:30etan</b> / A las 18:30 horas
<b>Amaiera ordua</b> Hora de finalización	<b>20:00etan</b> / A las 20:00 horas

#### GAI-ZERRRENDA:

##### ORDEN DEL DÍA:

- |  |  |
|--|--|
| <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Aurreko akta onartzea</li> <li>2. 2018ko aurrekontuaren proiektuaren aurkezpena</li> <li>3. 2018ko egutegia eta lantzeko gaiak</li> <li>4. Galde-eskeak</li> </ol> | <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Aprobación del acta anterior</li> <li>2. Presentación del proyecto de presupuesto 2018</li> <li>3. Calendario y temas a tratar en 2018</li> <li>4. Ruegos y preguntas</li> </ol> |
|--|--|

**BILERAN PARTE HARTU DUTE:**  
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

<b>KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA</b> PRESIDENCIA DEL CONSEJO	Pilar Arana (EAJ-PNV) <b>Mugikortasun eta Garraioko Zinegotzi Ordezkaria</b> Concejala Delegada de Movilidad y Transporte	
<b>TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK</b> REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS	1. <b>PP</b> 2. <b>Irabazi</b>	1. José María Murguiondo 2. Loic Alejandro
<b>KONTSEILUKO BOKALAK</b> VOCALES DEL CONSEJO	1. <b>dBus, Compañía del Tranvía de San Sebastián</b> <b>dBus, Compañía del Tranvía de San Sebastián</b> 2. <b>Donostialdea, Sociedad de Servicios</b> 3. <b>Aieteko Auzotarren elkarte, Lantxabe</b> 4. <b>Asociación Radio Taxi Donosti</b> 5. <b>Begiris Elkarte</b>  6. <b>ELKARTU</b> 7. <b>KALAPIE Hiriko Txirrindularien Elkarte</b> 8. <b>Real Automovil Club Vasco Navarro</b>	
<b>ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA</b> EXCUSARON SU ASISTENCIA	<b>EH BILDU</b> <b>Colegio Oficial de Arquitectos</b> <b>Fundación Cristina Enea Fundazioa</b> <b>SShops Donostia San Sebastián</b> <b>Juan Manuel Dublang (3. Herritar norbanakoa / Representante ciudadano nº3)</b>	

<b>UDAL TEKNIKARIAK</b> PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL	<b>Mugikortasun Ataleko Zuzendaria</b> / Director del Área de Movilidad Ángel Querejeta <b>Kontseiluaren Idazkaritza. Mugikortasuneko Administrazio Ataleko burua</b> / Secretaría del Consejo. Jefa de Sección Administrativa de Movilidad Josefa Estrella <b>Herri Partaidetza Zerbitzuko teknikaria</b> / Personal Técnico del Servicio de Participación Ciudadana Olatz Estensoro
<b>AHOLKULARITZA</b> <b>TEKNIKOA</b> ASESORIA TÉCNICA	<b>Haizea Ikerketa S.L</b> <span style="float: right;">Leire Sarobe</span>
<b>PARTAIDETZAREN</b> <b>DATUAK</b> DATOS DE PARTICIPACIÓN	<b>10</b> MKSeko pertsona kideak jarraian adierazten direnez gain: <b>Mugikortasuneko Zinegotzia, Kontseiluko Idazkaria, 2 udaleko teknikari eta kontseiluko laguntza teknikoko ordezkari 1.</b>  <b>Emakumezkoak</b> / Mujeres = 0 <b>Gizonezkoak</b> / Hombres = 10  10 personas integrantes del CSM, además de la Concejala Delegada de Movilidad, la Secretaria del Consejo, 2 personas del cuerpo técnico municipal y 1 persona de la asistencia técnica del Consejo.
<b>KONTSEILUKO</b> <b>IDAZKARITZA:</b> SECRETARÍA DEL CONSEJO:	<b>Mugikortasunerako Zuzendaritza</b> – Dirección de Movilidad: Urdaneta 13, 3º / 943 481380 / <a href="mailto:mugikortasuna@donostia.eus">mugikortasuna@donostia.eus</a>

**SAIOAREN BILAKAERA:**  
**DESARROLLO DE LA SESIÓN:**

<p>Lehenengo deialdian quorum nahikorik ez dagoenez, bilera bigarren deialdian hasi da.</p>	<p>Al no haber quórum suficiente en primera convocatoria, se inicia la reunión en segunda convocatoria.</p>
<p><b>1. Aurreko akta onartzea.</b></p>	<p><b>1. Aprobación del acta anterior.</b></p>
<p>Hasteko, etortzerik izan ez dutelako desenkusatu diren erakundeen eta pertsonen berri eman du Kontseiluko Idazkariak. Bestalde, azaldu du kontseilukide batek aurreko aktaren zirriborroan aldaketak egin eta posta elektronikoz bidali dituela, eta eskaera hori argitzeko dagoenez, aktaren onarpena hurrengo saiora arte atzeratuko da. Gainera, bilera bigarren deialdian hasi ere adieraziko da aipaturiko zirriborroan.</p>	<p>La Secretaria del Consejo da cuenta de las entidades y personas que han excusado su asistencia y explica que se han recibido por correo electrónico modificaciones al borrador del acta anterior por parte de un integrante. Al no haber podido aclarar esta solicitud, se pospone la aprobación del acta hasta la próxima sesión. En el susodicho borrador se modificará asimismo que la sesión se inicio en segunda convocatoria.</p>
<p><b>2. 2018ko aurrekontuaren proiektuaren aurkezpena.</b></p>	<p><b>2. Presentación del proyecto de presupuesto 2018</b></p>
<p>Lehendakaritzak iragarri du aurrekontuak abenduaren 22ko Osoko Bilkuran aurkeztuko direla. Inbertsioei buruzko 6. kapituluaren jasotako partida batzuen xehetasunak eman ditu:</p>	<p>La Presidenta anuncia que los presupuestos se presentarán en El Pleno el 22 de diciembre. Detalla algunas de las partidas del Capítulo 6, Inversiones:</p>
<p>500.000 € inguru, Larratxoko igogailuaren eraikuntza amaitzeko.</p>	<p>Alrededor de 500.000 € para terminar la construcción del ascensor de Larratxo.</p>
<p>600.000 € inguru, Heriz/Escolta Real-eko igogailuaren eraikuntza hasteko.</p>	<p>Alrededor de 600.000 € para iniciar la construcción del ascensor de Heriz/Escolta Real.</p>
<p>300.000 € inguru, Amara-Osinaga (Isabel II) oinezkoentzat jartzeko obrak hasteko. Aparkaleku zerrendak eta bide batzuk kenduko dira eta espaloia zabalduko da.</p>	<p>Alrededor de 300.000 € para iniciar la obra de peatonalización de Amara-Osinaga (Isabel II). Se eliminarán bandas de aparcamiento y algunos carriles y se ampliará la acera.</p>
<p>300.000 € inguru, Karlos I. ean saihesbideko taulen azpian hobekuntza lanak egiteko, Ferrerías plazatik aurrera.</p>	<p>Alrededor de 300.000 € para la obra de mejora bajo los tableros de variante en Carlos I, a continuación de la plaza Ferrerías.</p>
<p>Bizikletazko ibilbideak konektatzeko partida bat.</p>	<p>Una partida para las conexiones de itinerarios ciclistas.</p>
<p>50.000 € inguru, Udalaren garaje batean beharrezko azpiegitura komuna egiteko, gauaz ibilgailu elektrikoak kargatzeko. Proiektu berritzailea da eta Egiako San Francisco Javier enparantzako egoiliarren lurpeko aparkalekuan egingen da. Beste erabilzaile potentzialak batzuentzat eredu garri izan dadin espero da (finkak administratzaileak, jabeen komunitateak...).</p>	<p>Alrededor de 50.000 € para dotar de la infraestructura común necesaria a un garaje de propiedad municipal para la carga nocturna de vehículos eléctricos. Este proyecto, que se considera novedoso, se realizará en el Aparcamiento Subterráneo para Residentes en la Plaza San Francisco Javier de Egi y se pretende que sirva de ejemplo para otros potenciales usuarios (administradores de fincas, comunidades de propietarios...).</p>
<p>Radio Taxi Donosti Elkarteko ordezkariak galdetu du partidaren bat egonen ote den ibilgailu elektrikoak kalean kargatzeko edo profesionalak laguntzak emanen ote zaizkien, eta Lehendakaritzak ezetz erantzun du. Radio Taxi Donosti Elkarteko ordezkariaren ustez, EEEK eta IDAEk laguntzak ematen dituzte herritarrentzat eta profesionalentzat ere eman beharko lirake.</p>	<p>Ante la pregunta del representante de la Asociación Radio Taxi Donosti de si se contempla alguna partida para carga de vehículos eléctricos en la calle o ayudas para profesionales, la Presidenta contesta que no. El representante de la Asociación Radio Taxi Donosti opina que ya que el EVE y el IDAE dan ayudas para la ciudadanía en general, deberían incluirse ayudas para los profesionales.</p>
<p>Hernani kaleko Car Sharing kargatze guneari buruzko</p>	<p>Se inicia un intercambio de opiniones sobre el punto de recarga de Car Sharing de la calle Hernani. El representante de dBus aclara que se realizó a través de una subvención europea y que dado que era un proyecto</p>

hainbat iritzi eman dira. dBus-eko ordezkariak azaldu du Europako diru-laguntza baten bidez egin zela eta, proiektu pilotua izan zenez, ez zuela jarraipenik izan.	piloto, no tuvo continuidad. El representante de la Asociación Radio Taxi Donosti cree que habría que poner puntos de recarga en la calle.
Radio Taxi Donosti Elkarteko ordezkariak uste du kargatze guneak jarri beharko liratekeela kalean.	El representante del RACE opina que quizás debería desarrollarse normativa para que en la construcción de un edificio o aparcamiento, se debiera incluir obligatoriamente una infraestructura para la recarga de coches eléctricos.
RACEko ordezkariak uste du beharbada araudia garatu beharko litzatekeela, eraikin edo aparkaleku bat eraikitzean nahitaez auto elektrikoak kargatzeko azpiegitura bat egin behar izateko.	Se inicia un intercambio de opiniones sobre las distintas tecnologías de recarga de coches eléctricos (cargas lentas, cargas rápidas, cargas ultrarápidas...), sus ventajas e inconvenientes, la necesidad de tenerla en cuenta a la hora de diseñar la ciudad...
Hainbat iritzi jarri dira mahai gainean: auto elektrikoak kargatzeko teknologiak (karga motela, karga bizkorra, karga ultra-bizkorra...), haien abantailak eta desabantailak, hiria diseinatzeko garaian gai hau kontuan hartzeko beharra...	La Presidenta informa que están en contacto con los administradores de los aparcamientos de Donosti, para ver la posibilidad de que se conviertan en gestores de puntos de recarga de vehículos eléctricos.
Lehendakariak jakinarazi duenez, harremanetan daude Donostiako aparkalekuen administratzaileekin, ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneen kudeatzaile bihurtzeko aukerarik izanen ote luketen ikusteko.	La Presidenta detalla las partidas de aportación a dBus, 14 millones de euros y a la Autoridad General del Transporte, 187.000 €.
Lehendakariak, jarraian, dBusek eta Garraioaren Agintaritza Nagusiak jasoko dituzten partiden berri eman du: 14 milioi euro eta 187.000 €, hurrenez hurren.	La Presidenta detalla algunas de las partidas del Capítulo 2, Gastos en Bienes Corrientes y Servicios:
Lehendakariak Ondasun Korrante eta Zerbitzuetarako Gastuei buruzko 2. kapituluko partida batzuei buruzko xehetasunak eman ditu:	Hay una partida de subvenciones a propietarios de licencias de vehículos adaptado para el mantenimiento de los mismos.
Ibilgailu egokituen lizentzia duten jabeek diru-laguntzak emateko partida bat dago, ibilgailu horien mantentze lanetarako.	Alrededor de 25.000 € para la Feria de la bicicleta. Alrededor de 50.000 € para Eskola bidea.
25.000 € inguru bizikletaren Feriarako.	El representante de Lantxabe opina que en el entorno de la rotonda de jesuitinas se produce un caos circulatorio.
50.000 € inguru Eskola Biderako.	La Presidenta reconoce que es un entorno muy complicado, ya que en los alrededores hay 5 colegios (4 de los cuales cuentan con transporte escolar), ocurriendo sobre todo a la hora de entrada a los colegios. Informa que los 5 colegios están muy implicados con la técnica de Eskola bidea y que además el Departamento de Psicología Ambiental de la UPV ha hecho un estudio, que se publicará en breve, para buscar las razones por las que tantos niños/as van en coche al colegio.
Lantxabeko ordezkariaren ustez, Jesuitinetako biribilgunearen inguruetan zirkulazioa kaotikoa da.	La Presidenta comunica que habrá un nuevo contrato del Sistema público de bicicleta eléctrica. Admite que no está dando todo lo esperado y que además están saliendo nuevos modelos de negocio de alquiler de bicicletas (vinculadas a aplicaciones para el móvil) que están revolucionando el mercado. Se está analizando qué ocurre en otras ciudades, qué consecuencias están teniendo y cómo podrían afectar.
Lehendakariak onartu du ingurune hori oso konplexua dela, 5 bat ikastetxe daudelako (horietako 4k eskola garraioa dute). Eskolara sartzeko orduetan gertatzen diren arazoak batik bat. Gaineratu duenez, 5 ikastetxeak harremanetan daude Eskola Bideko teknikariarekin eta, bestalde, EHUKo Ingurumen Psikologia Sailak azterlan bat egin du, horrenbeste haur eskolara autoz joatearen arrazoak bilatzeko. Azterlana aurki argitaratuko da.	La Presidenta comunica que habrá un nuevo contrato del Sistema público de bicicleta eléctrica. Admite que no está dando todo lo esperado y que además están saliendo nuevos modelos de negocio de alquiler de bicicletas (vinculadas a aplicaciones para el móvil) que están revolucionando el mercado. Se está analizando qué ocurre en otras ciudades, qué consecuencias están teniendo y cómo podrían afectar.
Lehendakariak jakinarazi duenez, kontratu berria izenpetuko da bizikleta elektrikoaren sistema publikorako. Ez da espero zen emaitza lortu eta, gainera, bizikletak alokatzeko eredu berriak sortzen ari dira (mugikorreko aplikazioekin lotuta), merkatuan iraultza eraginez. Beste hiri batzuetako kasuak aztertzen ari dira, haietan ematen ari diren ondorioak eta izan litzaketenak.	Se abre un intercambio de opiniones sobre estas cuestiones.
Gai hauei buruzko hainbat iritzi adierazi dira.	Ante la pregunta del representante del PP de si se va a permitir este modelo en Donostia, la Presidenta contesta que en principio no, que ahora se están estudiando estos modelos.
PPko ordezkariak galdetu du Donostian eredu hori aplikatuko ote den, eta Lehendakariak erantzun du printzipioz ezetz, orain eredu hauek ari direla aztertzen.	
Elkartuko ordezkariaren ustez, Irisgarritasun Plana motel	

doa. Lehendakariak hala dela onartu du, baina gaineratu du esku-hartze bakoitzak kostu handia duela.	El representante de Elkartu opina que el Plan de accesibilidad va lento. La Presidenta reconoce que es así, pero que cada actuación tiene un coste muy elevado.
Irabaziko ordezkariak galdetu du disuasio aparkalekuekin erlazionatutako esku-hartzeren bat eginen ote den, eta Lehendakariak adierazi du horretan lanean ari direla baina epe luzeko gaia dela.	Ante la pregunta del representante de Irabazi sobre si se va a realizar alguna actuación relacionada con los parkings disuasorios, la Presidenta informa es que se está trabajando en ello, pero que es un tema a largo plazo.
Irabaziko ordezkariaren ustez, disuasio aparkalekuaren eta Donostiako bizitegi eremuen arteko konexioa erraztu behar da, eremu horietako biztanleek autoa disuasio aparkalekuan uzteko aukera ere izan dezaten.	El representante de Irabazi opina que lo que hay que hacer es facilitar la conexión entre el parking disuasorio y las zonas residenciales de Donosti, de forma que incluso los residentes de esas áreas pudieran dejar el coche en el parking disuasorio.
Beste esku-hartze batzuetan mugikortasun bertikaleko esku-hartzeak lehenesteko formula matematikoa erabiliko ote den galdetu du Irabaziko ordezkariak. Lehendakariak azaldu duenez, kostu handiko metodologia da eta garraio bertikalean zentzua duen arren (esku-hartzeek kostu handia dutelako), kostu txikiagoko esku-hartzeetan ez du merezi.	El representante de Irabazi pregunta si se utilizará en otras actuaciones la fórmula matemática de priorización de actuaciones de movilidad vertical. La Presidenta explica que es una metodología de coste muy elevado, que tiene sentido en transporte vertical porque las actuaciones tienen un coste muy elevado, pero que para actuaciones de menor coste, no compensa.
PPko ordezkariak iradoki du disuasio aparkalekuetan ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak jar litezkeela.	El representante del PP sugiere que podrían instalarse puntos de recarga de vehículos eléctricos en los parkings disuasorios.
PPko ordezkariak adierazi duenez, ez dago intentsitate handiko zirkulazioari konponbidea emateko aurrekontu partidariak. Lehendakariak jakinarazi du gaia aztertzen eta beste esperientzia batzuk ikusten ari direla, baina oraindik ez dutela konponbide egokirik aurkitu.	El representante del PP señala que no hay partida presupuestaria para solucionar el tráfico intenso. La Presidenta informa que se está analizando el tema y viendo otras experiencias, pero que aún no se ha dado con la solución adecuada.
PPko ordezkariak adierazi du ez dagoela bizikletetarako aparkaleku estaliak egiteko aurrekontu partidariak. Lehendakariak jakinarazi duenez, bizikletetarako aparkaleku estali bat jarriko da Pio XIIin (lizitazioa lehiaketara aterako da berriro) eta autobus geltokiko aparkalekua mantentzeko partida bat dago.	El representante del PP señala que no hay partida presupuestaria para aparcamientos cubiertos de bicicletas. La Presidenta informa que se habilitará un aparcamiento cubierto para bicicletas en Pio XII (vuelve a salir a concurso la licitación) y que hay una partida para el mantenimiento del aparcamiento de la estación de autobuses.
PPko ordezkariak Carquizano kalea oinezkoentzat egitearen inguruan galdetu du, eta Lehendakariak azaldu du kokaleku hori aukeratu dutela bertako egoera dezente hobetuko dela uste delako: urrun samar dagoen kalea da, Nafarroa Beherea plazarekin lotu ahalko da... Proiektua bizilagunei aurkeztu zaiela jakinarazi du, eta zenbait ezaugarri aipatu ditu: txandakako aparkaleku misto batzuk egoiliarrentzat jarriko dira, 20:00etatik aurrera aparkatu ahalko da 15 aparkalekutan (behare bezala seinaleztatuta egonen dira), taxi geltokiko zerbitzu osagarriaren tarte Padre Larroca-ra eramanen da, etab.	Ante el interés del representante del PP por la peatonalización de la calle Carquizano, la Presidenta expone que se ha optado por esa ubicación porque se cree que puede mejorar bastante con la peatonalización: es una calle algo apartada, podrá enlazar con la plaza Nafarroa Beherea.... Informa que se presentó el proyecto a los vecinos. Enumera algunas de las características del proyecto: se reconvertirán algunas plazas de aparcamiento de rotación mixta a residentes, se podrá aparcar a partir de las 20:00 en 15 plazas nocturnas que estará debidamente señalizadas, el tramo de servicio auxiliar de la parada de taxis se pasará a Padre Larroca, etc.
Radio Taxi Donosti Elkarteko ordezkariaren ustez, taxi geltokia motz gelditzen da. Lehendakariak onartu du gai horri buruz ere hitz egiten ari direla.	El representante de la Asociación Radio Taxi Donosti opina que la parada de taxis queda escasa. La Presidenta reconoce que es un tema que se está hablando.
dBus-eko ordezkariak Miramongo 28. lineako proiektu pilotuaren berri eman du: autobus artikulatuek modu elektrikoan funtzionatzea lortu nahi da. Terminalean 5-6 minutuko karga bat egin behar da kanpai baten bidez, eta hori nahikoa litzateke linearen 12 kilometroak egiteko. Kargatzeko estazioa Miramonen egonen da eta autobus artikulatuak diseinu berria izanen du, tranbiarekin. Udalarekin, Iberdrolarekin eta Irizarrekin batera ari dira lanean. Udaberrian jarriko da martxan eta 3-6 hilabeteko iraupena izanen du. Aurrerago, 28. linea osoa	El representante de dBus informa sobre el proyecto piloto de la línea 28 en Miramón: el propósito es funcionar en modo eléctrico con los autobuses articulados. Hay que hacer una carga de oportunidad: en la terminal, 5-6 minutos de carga a través de una campana, de forma que

elektriko bihurtuko da.

RACEko ordezkariak hauxe galdetu du: autobusak tranbia erakoak izanen baldin badira, autobusean sartzeko eta bertatik ateratzeko edozein ate erabili ahalko den. Dbus-eko ordezkariak tranbia eredueta aukera bat dela erantzun du. Argitu du dBus-eko autobusek beste hiri batzuetako tranbien abiadura komertzial bertsua dutela. Azaldu du edozein atetik sartu ahal izatea ez dela abiadura komertziala hobetzeko metodo bakarra, eta iruzurraren arazoa dakarrela. Arazo hori konpontzeko dago oraindik.

Lantxabeko ordezkariak jakin nahi du zer ekarpen egiten dion Udalak dBus-i, eta dBus-eko ordezkariak argitu du zenbateko hori tarifa sistemagatik jasotzen duten kontentsazio bat dela. Izan ere, badaude txartelaren prezioa (1,2 €) baino baxuagoak diren tarifak: erretirodunen tarifak, egindako bidaia kopuruaren araberrako deskontuak, etab. Aplikatzen ari diren hobekuntza teknologikoak ohiz kanpoko baliabideen bidez egiten direla argitu du.

### 3. 2018ko egutegia eta lantzeko gaiak

Lehendakariak jakitera eman du 2018an ohiko hiru bilkura egiten direla: martxoan, ekainean eta azaroan. Gai zerrendako gaiak hauek izanen dira:

Martxoa:

- Bizikleta aparkatzekoak gehiago erabiltzeko modua
- Metroko lanei buruzko aurrerapena
- Egiako TAO
- Mugikortasuneko Kontseilu Sektorialaren Ebaluazioa

Ekaina:

- Zamalanak hirian

Azaroa:

- 2019ko udal aurrekontua

- Mugikortasuneko Kontseilu Sektorialaren programazioa 2019rako

Lehendakariak jakitera eman du Amara-Osinaga (Isabel II.a) oinezkoentzat egiteko lanen gaia kanpoan uztea erabaki dela, auzoan azalduko delako.

Cristina Enea Fundazioko ordezkariak proposatu eta e-maillez bidali dituen gaiak irakurri ditu Lehendakariak (oinezkoen mugikortasunari buruzko diagnostiko partekatua, bizikleta-oinezkoa gatazka objektibatzea eta partekatzea, eta bizikletetarako bideak beste gailu batzuek erabiltzea).

RACEko ordezkariaren ustez, ekainean beste gairen bat sar liteke.

Begiris-eko ordezkariak hiru gai hauek sar daitezene eskatu du:

la carga resulte suficiente para los 12 km que tiene la línea. La estación de carga se ubicará en Miramon y habrá un nuevo diseño de autobús articulado, tipo tranvía. Se trabaja junto con el ayuntamiento, Iberdrola e Irizar. Se pondrá en marcha en primavera y durará entre 3 y 6 meses. Más adelante, se llevará a cabo toda la electrificación de la línea 28.

Ante la pregunta del representante del RACE de si modelo tranviario significa que se pueda acceder y bajar del autobús por cualquiera de las puertas, el representante de Dbus contesta que en los modelos tranviarios es una opción. Aclara que la velocidad comercial de los autobuses de dBus es parecida a la velocidad comercial de tranvías de otras ciudades. Explica que el acceso por cualquier puerta no es el único método de incrementar la velocidad comercial, y que conlleva el problema del fraude, que todavía no se ha resuelto.

Ante la pregunta del representante de Lantxabe sobre la aportación del ayuntamiento a dBus, el representante de dBus puntualiza que esa cantidad es una compensación por el sistema tarifario, ya que hay tarifas que tienen un importe inferior al precio del billete (1,20 €) como las tarifas para personas jubiladas, los descuentos por número de viajes realizados, etc. Aclara que las mejoras tecnológicas que se van aplicando se hacen a través de recursos extraordinarios.

### 3. Calendario y temas a tratar en 2018

La Presidenta informa que se prevé la realización de tres sesiones ordinarias en 2018, en marzo, junio y noviembre. Los temas a incluir en el orden del día son:

Marzo:

- Cómo incrementar el uso de los aparcabicis
- Avance sobre las obras del metro
- OTA en Egia
- Evaluación del Consejo Sectorial de Movilidad

Junio:

- Carga y descarga mercancías en la ciudad

Noviembre:

- Presupuesto municipal del 2019
- Programación 2019 del Consejo Sectorial de Movilidad

La Presidenta informa que se descartó incluir el tema de la obra de peatonalización de Amara-Osinaga (Isabel II) porque se explicará en el barrio.

La Presidenta lee los temas propuestos y enviados por e-mail por el representante de Fundación Cristina Enea (diagnostico compartido sobre movilidad peatonal, objetivizar y compartir conflicto bici-peatón y uso de vías ciclistas por otros artefactos).

<p>1) Audio sistema autobusetan: Lurraldebus audio sistema modu iraunkorren jarri du bere autobusetan. dBus-eko autobusetan ere audio sistema modu iraunkorren aktiba liteke, eta ez soilik erabiltzaileek eskatzen dutenean.</p>	<p>El representante del RACE opina que podría incluirse algún otro tema en junio</p> <p>El representante de Begiris solicita que se incluyan tres temas</p>
<p>2) Bidegorriak: itsuei zaila egiten zaie bidegorriak non dauden identifikatzea. Diseinuaren baitan metodoen bat erabili behar da bidegorriak eta oinezkoentzako eremuak bereizteko.</p>	<p>1) Sistemas de audio en los autobuses: Lurraldebus ha incorporado sistema de audio de forma permanente en sus autobuses. Propone solicitar a dBus que en sus autobuses se active también de forma permanente y no a petición de la persona usuaria.</p>
<p>3) Espaloiak: hiri ahal bezain irisgarria sortzen ari den bitartean, espaloiak oztopoz betetzen ari dira (lorontziak, erakustegiak, esekitokiak...) eta gero eta zailagoa da haietan barrena ibiltzea. Oinezkoen ibiltzeko eskubidea eta negozioek beren jarduerak gauzatzeko eskubidea uztartu behar dira.</p>	<p>2) Bidegorris: para las personas invidentes es difícil identificar donde está el bidegorri. Debe incluirse algún método desde el diseño para poder diferenciar los bidegorris de las zonas peatonales.</p>
<p>Lehendakariak gai horien berri jaso du, une eta espazio egokian tratatzeko.</p>	<p>3) Transitabilidad de las aceras: al tiempo que se está haciendo una ciudad lo más accesible posible, la ciudad se está haciendo intransitable, porque las aceras se llenan de obstáculos: macetas, expositores, tenderetes... Se debe conjugar el derecho de transitoriedad del peatón con el derecho de los negocios a desarrollar su actividad.</p>
<p>Irabaziko ordezkariaren ustez, lau bilera egin beharko lirateke.</p>	<p>La Presidenta toma nota de los temas.</p> <p>El representante de Irabazi opina que deberían realizarse cuatro reuniones.</p>
<p>Lau bilera egitekotan, lehenengo bilera otsailera aurreratzeke proposatu du Lehendakariak.</p>	<p>La Presidenta propone adelantar la primera reunión a febrero e incluir una reunión más durante el año.</p>
<p>Elkartuko ordezkariak Mugikortasun Bertikalerako Planaren puntu zehatz batzuei buruzko galderak egin ditu. Lehendakariak agindu du informazioa bidaliko diola.</p>	<p>El representante de Elkartu pregunta sobre algunos puntos concretos del Plan de Movilidad vertical. La Presidenta se compromete a enviarle la información.</p>
<p>Kontseiluko Idazkariak iragarri du Euskadiko Mugikortasun eta Logistika Klusterrak Kontseiluko kide izateko eskaria egin duela. Baldintzak betetzen ditu eta Batzorde Iraunkorrek oniritzia eman dio egindako eskariari. Inork ez du eragozpenik jarri eta, beraz, Euskadiko Mugikortasun eta Logistika Klusterra Mugikortasuneko Kontseilu Sektorialeko kide gisa onartu da.</p>	<p>La Secretaria del Consejo anuncia que el Clúster de Movilidad y Logística de Euskadi ha solicitado ser miembro del Consejo. Informa que cumple con los requisitos y que la Comisión Permanente ha dado el visto bueno a su solicitud. Ninguno de los presentes realiza ninguna objeción, por lo que queda aprobado como miembro del Consejo Sectorial de Movilidad el Clúster de Movilidad y Logística de Euskadi.</p>
<p>Herritarren Partaidetza Zerbitzuko teknikariak jakitera eman duenez, Kontseilu Sektorialen ebaluazio orokorra egingen da. Urtarrilean galdetegi bat bidaliko zaie elkarte, erakunde eta pertsona fisikoei eta, aurrerago, elkarriketa pertsonalak egingen dira. Gainera, ondorioak kontrastatzeko saio bat egingen da erakunde batzuekin, saioetan aurkezpena egin aurretik.</p>	<p>La técnico del Servicio de Participación Ciudadana informa que va a llevarse a cabo una evaluación general de los Consejos Sectoriales. En enero se mandará un cuestionario a las asociaciones, entidades y personas físicas y más adelante se realizarán entrevistas personales. Además, se llevará a cabo una sesión de contraste de las conclusiones con algunas entidades, previo a la presentación en las sesiones.</p>
<p><b>4. Galde-eskeak</b></p>	<p><b>4. Ruegos y preguntas</b></p>
<p>Lantxabeko ordezkariak galdetu du semaforo edo oinezkoen pasabide bat jarriko ote den EITBko biribilgunearen eta Miramongo gasolindegiaeren artean. Lehendakariak jakitera eman du gaia aztertu dela eta ez dirudiela bi aukera horiek egokiak direnik. Lantxabeko ordezkariaren ustez informazio seinale bat jarri beharko litzateke bidearen amaieran oinezkoen pasabiderik ez dagoela adierazteke.</p>	<p>El representante de Lantxabe pregunta si se pondrá un semáforo o paso peatonal entre la rotonda de EITB y la estación de servicio de Miramón. La Presidenta comunica que se ha analizado y que ninguna de las dos opciones parece adecuada. El representante de Lantxabe sugiere</p>
<p>Pagolako sakanguneen kopuruari eta altuerari buruzko hainbat iritzi adierazi dira.</p>	<p>El representante de Lantxabe pregunta si se pondrá un semáforo o paso peatonal entre la rotonda de EITB y la estación de servicio de Miramón. La Presidenta comunica que se ha analizado y que ninguna de las dos opciones parece adecuada. El representante de Lantxabe sugiere</p>
<p>Lantxabeko ordezkariak jakitera eman duenez, Ertzaintzak zigilatutako ibilgailu bat dago aspaldidanik</p>	<p>El representante de Lantxabe pregunta si se pondrá un semáforo o paso peatonal entre la rotonda de EITB y la estación de servicio de Miramón. La Presidenta comunica que se ha analizado y que ninguna de las dos opciones parece adecuada. El representante de Lantxabe sugiere</p>



<p>Iruñea kalean, eta TAO aparkaleku bat okupatzen ari da. Lantxabeko ordezkariaren interesa dela eta, dBus-eko ordezkariak jakitera eman du panel elektronikoa duten geraleku guztietan audioa dagoela, autobusetako atea irekitzen denean bozgorailua aktibatzen dela eta autobusek audio sistema dutela. Azaldu duenez, 2004an modu iraunkorrean aktibatu zen autobusetako audioa baina, erabiltzaileen kezak zirela eta, audioa aginteen bidez aktibatzea erabaki zen. Ateei konektatutako bozgorailuak ere aginteekin funtzionatzen du. Aginterik ez duten pertsonak gidariari galde diezaiokete. Geralekuetan sakagailuak jartzeko aukera aztertu zen baina, beste hiri batzuetan gertatzen zena ikusirik (bandalismoa, kezak zaratagatik...), agintearekin funtzionatzea erabaki zen. dBus-en App-ak ere badu audio sistema.</p>	<p>que se ponga una señal informativa para indicar que al final del camino no existe un paso peatonal.</p> <p>Se inicia un intercambio de opiniones sobre el número y altura de los badenes de Pagola.</p> <p>El representante de Lantxabe comunica que hay un vehículo precintado por la Ertzantza en la calle Pamplona ocupando una plaza de OTA desde hace tiempo.</p> <p>Ante el interés del representante de Lantxabe, el representante de dBus informa que existe audio en todas las paradas que cuentan con panel electrónico, el autobús cuenta con un altavoz que se activa al abrir la puerta y hay un sistema de audio dentro de los autobuses. Explica que en 2004 se activó de forma permanente el audio dentro de los autobuses, pero que ante las quejas de los usuarios, se optó por que el audio se activara con mandos.</p>
<p>Begirik-eko ordezkariaren ustez, panel elektronikorik ez duten geraleku asko daude, ateko bozgorailu askok ez dute funtzionatzen eta gidari askok ez dute bozgorailua aktibatzen itsu bat igotzen denean autobusera, hori egiteko agindua izan arren.</p>	<p>El altavoz conectado a las puertas también funciona con mando. Para las personas que no tienen mando, está la opción de preguntar al conductor. En las paradas se barajó la opción de poner pulsadores, pero viendo las consecuencias que había en otras ciudades (vandalismo, quejas por ruido...), se optó por que funcionaran con mando. La app de dBus también cuenta con sistema de audio.</p>
<p>Autobus barruko audio sistema etengabe aktibatuta egotearen abantailei eta desabantailei buruzko iritzia trukea egon da.</p>	<p>El representante de Begiris opina que hay muchas paradas sin panel electrónico, muchos altavoces de puerta no funcionan y muchos conductores que no activan el altavoz si sube un invidente aunque tengan esa orden.</p>
<p>Elkartuko ordezkariaren ustez, edozein esku-hartze eginsin aurretik herritarrak informatzeko kanpaina egin beharko litzateke.</p>	<p>Se inicia un intercambio de opiniones sobre las ventajas y desventajas de que el sistema de audio interno esté activado de forma permanente.</p>
<p>Audio sistemaren gaia Kontseiluko gai zerrendan sartzeko proposatu du Lehendakariak.</p>	<p>El representante de Elkartu opina que cualquier actuación debería ir acompañada de una campaña informativa para la ciudadanía.</p>
<p>Kalapieko ordezkariak Hirigintza Arloko aurrekontu partida batzuen inguruko galderak egin ditu.</p>	<p>La Presidenta propone incorporar el tema del sistema de audio en el consejo.</p>
<p>Beraberako hobekuntzen artean bidegorri bat ote dagoen jakin nahi duenez, Mugikortasun Arloko Zuzendariak erantzun dio ez dagoela planifikatuta.</p>	<p>El representante de Kalapie interpela sobre algunas de las partidas presupuestarias del Área de Urbanismo:</p>
<p>Eta Lehendakariak erantzun dio ez dakiela Zubietako oinezkoen bidea bizikletetarako ere izanen ote den.</p>	<p>Ante la pregunta de si las mejoras en Berabera incluyen un bidegorri, el Director del Área de Movilidad contesta que no está planificado.</p>
<p>Larramendi oinezkoentzat egiteari dagokionez, behar bezala seinaleztatzeko iradoki du, bizikletan ibili ote daitekeen jakiteko. Lehendakariak uste du ez dela erdiguneko kale batzuk oinezkoentzat egiteko unea, ez behintzat metroko lanak bukatu bitarte. Oinezkoentzako kaleetan bizikletak ibiltzeari dagokionez, gogora ekarri du gai horren inguruan badagoela araudia.</p>	<p>Ante la pregunta de si se prevé que el camino peatonal de Zubieta también sea ciclista, la Presidenta contesta que lo ignora.</p>
<p>Autobus geltokiko bidegorriaren ibilbideari dagokionez, Lehendakariak jakitera eman du buelta asko eman zaizkiola gaiari baina ez aldatzea erabaki dela.</p>	<p>Respecto a la peatonalización de Larramendi, sugiere que se señalice adecuadamente para saber si se puede circular en bicicleta. La Presidenta considera que no es momento de peatonalizar algunas calles del Centro, hasta que se terminen las obras del metro. Respecto a la circulación de bicicletas en calles peatonalizadas, recuerda que hay normativa al respecto.</p>
<p>Kalapieko ordezkariaren ustez, bidegorriak modu desorekatuan ari dira egiten hiriko auzoetan. 2018ko aurrekontuetan, ia partida guztiak Amarrarako dira eta ez dago partidarik Altzarako edo Bidebietarako, adibidez.</p>	<p>Ante la pregunta del trazado del bidegorri en la zona de la estación de autobuses, la Presidenta informa que se le ha</p>
<p>Lehendakariak gogorarazi du aurreproiektu bat dagoela Altzarako. Mugikortasun Arloko Zuzendariak azaldu</p>	

<p>duenez, sarea irizpide teknikoen arabera ari da zabaltzen.</p>	<p>dado muchas vueltas pero que se ha optado por no cambiarlo.</p>
<p>Saioetako aktak epe laburragoan bidaltzeko eskatu du Irabaziko ordezkariak, ez soilik hurrengo bileraren deialdiarekin batera. Eta autobusak geralekutik joateko segundo batzuk bakarrik falta direla abisatzeko mekanismo edo seinale bat ezar dadin iradoki du.</p>	<p>El representante de Kalapie opina que la ciudad ha ido desarrollando bidegorris de forma desequilibrada en los diferentes barrios. En los presupuestos de 2018 casi todas las partidas son para Amara, mientras que no hay partidas en otros barrios como Alza o Bidebieta.</p>
<p>Lehendakariak iradokizun horien berri jaso du. Bilera amaitu da.</p>	<p>La Presidenta recuerda que hay un anteproyecto para Alza. El Director del Área de Movilidad explica que la red se va extendiendo con criterios técnicos.</p>
	<p>El representante de Irabazi solicita que el acta de las sesiones se mande en plazos más cortos que los anteriores, no sólo junto con la convocatoria de la próxima sesión. Sugiere que se establezca algún tipo de mecanismo o señal para que el autobús avise que sólo le quedan unos segundos para irse de la parada y no varios minutos.</p>
	<p>La Presidente toma nota de las sugerencias.</p>
	<p>Finaliza la reunión.</p>